# BARREN
ELGOIBARKO ASTEKARIA

539. zkia.
XIII. urtea
2005eko abuztuaren 23a




# Jaietan... busti zaitez!

[ ERREPORTAJEA ] ARNO ZEZENAK • [ MUSIKA ] KAUTA

# Elustondo, S.L.

EDARI BANATZAILEAK

## Elustondok aholkatuta:



*Faustino, David Moreno eta Araco kriantzak*



*Juve Camps eta Jume Serra cava*



*Faustino VII hainbat urtabetako nahasketa*



*Etxetxo, Txomin Etxaniz, Arri eta Rezabal txakolinak*



*Marqués Valcarlos*



*Idiaquez, David Moreno eta Señorio Araco urteko ardo beltzak*

- Denominazio gabeko Errioxako ardoak
- Errioxako ardoak
- Kriantzak, erreserbak,...
- Cavak, "Faustino", "Martinez"...
- Orujoak / Afilador orujoa
- Likoreak
- Getariako Aizpurua txakolin freskoa
- Kontserbak



Trujal Mendia (Arroniz)
Nafarroako oliba-olio birijin estra

**San Roke, 32 - 34 (Institutu parean)** **Tel. 943 74 09 92**

# Sukia Elgoibarko jaiekin!!

# Ondo pasa!!

Azknengo faseko
etxebizitzak salmentan



Atzekaldea



Aurretiko bista



Construcciones Sukia Eraikuntzak, S.A | www.sukia.com

SUKIA
Kalitatea helburu

sukia    sukibide

GABILONDO
AGENCIA INMOBILIARIA
943 74 44 67
ELGOIBAR

## ASKETA
**ERREFORMAK, S.L.**

Maxpe, 3 behea - 20820 DEBA
Tel.: 943 19 19 52 - Faxa: 943 19 24 60
E-posta: asketa@telefonica.net
www.asketa-reformas.com

## BIOK DEKORAZIOA

Santa Klara, 26
ELGOIBAR
Tel.: 943 74 15 52
606 43 11 19
606 43 11 20
www.biokdekorazioa.com
biokdekorazioa@euskalnet.net

**Espezialistak gara fatxada eta teilatuak errehabilitatzen**
**Gehienezko kalitatea prezio onenean**

**10 urteko bermea gure lan guztietan!**



Altzolako bainuetxea
Valentine-n Valastic erabiliz margotua

Erreforma egin aurretik



**Valentine** Fatxaden linean liderrak

**Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe!**

## ZEZEN-BIDE
AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

***Ordenagailu bidez*** *teoria ikasteko gela berria* !



**ORDUTEGIA**
**10:00**etatik-**12:30**era
**15:00**etatik-**20:30**era

**San Frantzisko, 43 - 1. solairua**
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 behea**
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

# ZOZOAK BELEARI...



**MIKEL KORNEJO**



**IBAN URIZAR**

Zer moduz garunak, Ibane?

Eskutitz kuriosoa hau, uztaila erdialdera idatzi eta San Bartolome jaietan irakurtzekoa. Orain ez daukat ba nik jaietan pentsatzeko gogo handirik ze, hau argitaratzean, ni lanez itota ibiliko naiz tabernan eta ez daukat aurrez nekatzeko gogorik.

Igarle izatera jolas dezakegu. Egingo al dugu opor osteko iragarpen txiki bat? Adibidez... auto-istripuetan hildakoen kopuruak behera egingo du; suteen ondorioz erretako basoen azalera aurreko urtekoa baino nahiko handiagoa izan da; gizartea uraren arazoaz konturatzen hasi da; larruazaleko arazoak ehuneko hainbestean igo dira aurtengo udan...

Ez dira oso iragarpen orijinalak, opor osteko berri sorta bat besterik ez, beti aurrekoa baino ikusgarri, koloretsu eta izugarriagoa. Egin dudana egiteko ez da Nostradamus izan behar, pentsatuko duzu zuhurtasunez, Ibane. Gauza JAKINA da hori. Ez du misterio handirik...!

Misteriotsua hau da, Ibane: jakin arren, HORRELA GERTATUKO DA.

Askotan amestu dugu denboran bidaiatzeko makinarekin, baina atzera egin beharrik ez dagoen bizimodu batean amesten al dugu?

P.D.: Mikel, bitaminak erosi! (noizko argitaratuko ote da hau?)

P.P.D.: Ez ahaztu bisera, Ibane!

**«Askotan amestu dugu denboran bidaiatzeko makinarekin»**

**MIKEL**

**«Gure kondena: aurreskua regeton doinuekin»**

**IBAN**

Mikeleeeeeeeeee!!!

Ados nago zeurekin, ez dira iragarpen orijinalak. Uztaila bukatu ezean *jaixetan* irakurriko den *zozobelea*, to!! Abuztuko azken hasperenak hau irakurtzean, jaietako egitaraua birritan begiratu baina gustuko ezer topatu ez, eta bai, badakit kontentatzeko zaila naizela. Umore ona eta jaietako gogo itzela edukiko dute batzuek, gehienek, nahiz eta askok *euskaljai-tour* guztia pasatu ondoren ajearen izpirik eduki ez. Gabonetan pasatu ohi den bezala, *jaixek*, oporretako kontu eta abenturak kontatzeko balio dute. Noraino joan garen, nor ikusi dugun, zenbat belztu garen... erantzun beharreko galdera topikoak. Erantzunak ere orijinalak izan beharko: Cadizera joan naiz, *famoseteak* ikusi ditut, eta bai, eguzkiaz asetzeko nuen helburua bete dut.

Top-jaiak zerrendan gure *jaixak* dira azkenekoak, puntuatzeko azken txanpa, zapi gorriaren eta koadriletako blusa dotoreen erakusleiho fina, Bakoren omenezko handia den txiki eguna... gauez jai egunez lo. Gabeko mozolo asko ikustea tokatuko zaigu aurten ere, Mikele.

P.D: Jaietako zapia bisera azpian jarri, frakei gerrikoa kendu eta aurreskua *regeton* doinuekin dantzatzea izango da gure aurtengo kondenarik handiena, Mikele. Gora San Bartolome!!

Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak-beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

> JAIETAN EZ ZAITEZ SEKULA ESERI.
> GUSTUKOA EZ DUZUN NORBAIT JARRI DAITEKE ONDOAN
>
> Graucho Marx



# URRUZUNOREN *luma*

## Eskerrak

Ikasturtea amaitzear da. Udako oporraldian atseden hartuko dugu zenbaitek. 2005ari begira nago, isilik. Urte gogoangarria, oparoa, aberatsa, istiltsua izan da. Kirolean, politikan, ekonomian, kulturan... gai guztietan jazo dira gauzak. Behin hitz egin nuen hemen zoriontasunaz eta bizitzaren zentzuaz. Eta atzerabegirakoa biribiltzeko, azkenaldian izandakoetan jasotako laguntza eta babesa eskertu nahi ditut. Eskerrik asko guraso eta aiton-amonei. Eskerrak mutil-lagun eta ahizpari. Izeba Ruth, Garazi eta laukoteari. Eskerrik asko osaba Gotzoni, Inazio eta besteei. Koadrillan lagun ditudanei. Eskerrik asko EITBko eta Argiako lankideei, Montse Arregi eta kalean maitasunez hitz egin didaten guztiei. Eskerrik asko euskal komunikabide eta kirol-elkarteei. Gorabehera guztiak lau-lau bil ditzaket orain, 2005eko ikasturtea amaitu eta irailean sasoi betean berriro ekiteko. Aurretik baina Bartolome santuaren jaietan daukagu hitzordua elgoibartarrok. Ondo pasa oporrak!

***Ainhoa Lendinez***

## [ ZORTZIKO TXIKIAN ]



### TXOMIN MUJIKA

DULTZAINEROA

• **Goizeko dultzainak jendea otzandu ala asaldatu egiten du?**
Jaietan gaudela gogorarazi eta bizipoza ematen du.

• **Beldurraren irribarrea ikusten du Edu Arrillagak sokamuturran. Zuk?**
Ni ere ibiltzen naiz eta berezia da hemengo sokamuturra, emozionantea.

• **Ardotan bustitako niki zuria ala San Bartolome Eguneko trajea nahiago?**
San Fermin Egunak bezala, San Bartolome egunak ere magia dauka, baina Txiki eguna ere mundiala da. Osagarriak dira!

• **Aukeran nahiago duzun garraioa: goitibehera ala zaldia?**
Goitibehera dudarik gabe!

• **Sokamuturraren osteko salda eta txorizoa ala gaupasaren osteko txokolatea?**
Salda eta txorizoa, ez daukat zalantzarik!

• **Jaietan bai eta gainontzeko egunetan egiten ez duzun hori?**
Txiki egunean koadrilakook dugun kamiseta zuria jantzi!

• **Haurren marrazki lehiaketako gaia "Nire bizitzako egunik politena" da. Zurea?**
Sekula ez zait ahaztuko txistua estreinakoz kalean jo nuen eguna.

• **Irailaren 1ean Mauxitxa entzutean sentitzen duzuna?**
Lanera joan behar badut tristura baina, aurten bezala, oraindik oporrak baldin baditut, demaseko poza!

[b]arren

**Laguntzailea** Elgoibarko Udala **Zuzendaria** Jasone Osoro **Kazetariak** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea **Publizitatea** Eider Iriondo **Maketatzailea** Jaione Unanue **Kolaboratzaileak** Uxue Alberdi, Mikel Cornejo, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Esther Gurrutxaga, Iban Urizar, Kokoe K.E., Urruzuno, Unai Villena, Alaitz Vives **Esaera zaharra** Gotzon Garateren liburutik **Inprimategia** Gertu Koop. E. **Tirada** 4.400 ale **Lege gordailua** SS-1.038/92 **ISSN** 1139-1855

Argitaratzailea:

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

# TXIKI inkesta

## 18 urte izango bazenitu, zer egiteko aprobetxatuko zenituzke San Bartolomeak?

**Elena Lariz**
11 urte

Etxera nahi dudan orduan joateko eta gaupasak egiteko aprobetxatuko nituzke, orain goizo joan behar izaten dut.



**Iban Gonzalez**
10 urte

Parranda pixkat gehiago egin, etxera ordutegirik gabe joateko eta sokamuturraren aurrean ibiltzeko.





**Ibare Barbero**
10 urte

Koadrila bat edukiko nuke Txiki Egunean Errosario kalean ardoa botatzen ibiltzeko, eta etxera gaueko 10etan joango nintzateke!



**Jaione Maguregi**
12 urte

Parranda gehiago egingo nuke, gaupasak egin eta inolako ordutegirik gabe bizi. Dirua parranda egiteko gastatuko nuke.

## komikia



Iritsi dira aurtengo San Bartolomeak.

# Nola nahiago duzu jaiak igarotzea, bikotearekin ala lagunekin?

**RAFAEL RODRIGUEZ**
Kamareroa
40 urte



“Jaietan lan egitea tokatzen zait beti, baina koadrilan hobeto pasatzen dela uste dut, Txiki Egunean, batez ere. San Bartolome Eguna bikotearekin ibiltzeko ondo dago.”

**ELENA EGUREN**
Administrari laguntzailea
36 urte



“Normalean ez naiz hemen egoten, baina bestela, bikotearekin ibiltzea gustatzen zait. Gazteagoak ginenean koadrilan, baina orain lasai-lasai bikotearekin.”

**ANGEL CONDE**
Mekanikoa
44 urte



“Bi aukerak daude ondo. Txiki Eguna koadrilakoekin, eta gainontzekoak bikotearekin. Batzutan koadrila mixtoa egiten dugu, eta bikoteekin ibiltzen gara, denok batera.”

**ANA DELGADO**
Etxekoandrea
57 urte



“Lagunekin. Nire bikoteari ez zaio dantza egitea gustatzen, eta niri izugarri gustatzen zait. Lagunekin askoz gehiago disfrutatzen da jaietan bikotearekin baino.”


LARRAÑAGA AUTOESKOLA
Tel: 943 74 10 11

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!

Zatoz informazio eske!

ecenarro
Barruko erropak • Umeentzako erropak
San Frantzisko, 10 Tel: 943 74 26 19

press to
Kalitatezko tindategia
Kalitatezko tindategia
Arropen eraldaketa eta konponketa
San Frantzisko, 32 Tel. 943 74 35 08


NAVA
INPRIMATEGIA
ONDO PASAU,
SAN BARTOLOME JAIXAK!
• Diseinu Grafikoa
• Iragarkiak
• Karpetak
• Bisita Txartelak
• Kartelak
• Ezkontza Gonbidapenak
• Jaunartze Oroigarriak
• Hileta Oroigarriak etab.
DEITU, ETA ESKA EZAZU AURREKONTUA.
Santa Ana, 44 • Telf. - Fax: 943 74 44 51 • e-mail:nava@euskalnet.net • 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)


Ondo pasau San Bartolomiak
Muruamendiaraz
ELGOIBAR
Jaixak Ondo pasau"
Jaiak nahi badituzue
gozo-gozo igaro
Muruamendiarazen
aukera ugari dago
MURUAMENDIARAZ gozotegia · San Bartolome, 34-35 · Tel. 943 740 345




**IZAN ZIRELAKO GARA**
**GARELAKO IZANGO DIRA**
**JAIETAN ERE EUSKALDUN**

*EUZKO GAZTEDI*

Elgoibarko **EGI**

# SOKAMUTURRA

## SOKAREN MUTURRETIK

*San Bartolometako osagai garrantzitsua da sokamuturra. Zer lirateke jaiak sokamuturrik gabe, ezta? Arno Ganadutegiko Agustin Mugerzak 20 urtetik gora daramatza zezen eta larre-behiak Elgoibarrera ekarriz. 50-60 zezentxoz inguratuta traktoretik jaten ematen genien bitartean eman dizkigu ondorengo azalpenak. Abereak bien bitartean bisitari arrotzari begirik kendu gabe. Begiradek adarkadaK emango balituzte!*



SOKAMUTURRA

# SOKAREN MUTURRETIK

*San Migel Bailarako Irunaso baserrian genuen zita Agustin Mugerzarekin. Elgoibarko sokamuturrera inoiz atera zaretenoi ezagun egingo zaizue gizon zaildu honen aurpegia eta ibilera. Urtero-urtero zezenaren atzetik, sokari eutsiz, kalean gora eta behera; nekaezina dirudi. Mutrikuarra da jaiotzez baina Irunaso baserrira dago ezkondua. Azken 35 urteak zezen eta sokamuturren munduan pasa ditu eta 83ko uholdeen ostean hasi zen Elgoibarko sokamuturrera zezen eta larre-behiak ekartzen. Bi bazkideren artean 200 abelburu dituzte Arno ganadutegian, plazetarako zezentxo, betizu eta larre-behiak batuz.*

Elgoibarkoa dagoen sokamuturrarik luzeenetakoa da. Hiru ordutan 5 edo 6 zezentxo askatzen dituzte. Zezenak gidatzeko "sasoiko sei sokamutil" behar direla esan digu Agustinek, "elkar ondo hartzen dutenak eta sokarekin ibiltzera ohitutakoak behar dute izan, ez ekinaldi bat egin eta non dauden arrastorik lagatzen ez dutenak. Ez da saltaka egitea bakarrik, sokari eutsi, tira, e.a. Mutil berri askok eskuak erreta, azalbizian, amaitzen dute sokaren erruz. Eskolarik onena bertan ibiltzea da".

Sokamutilak bezalaxe, abereak ere sokari lotuta ibiltzera ohitutakoak izatea komeni da. "Sekula lotu gabeko zezenari lepotik soka jarriz gero, zoroaren pare jartzen da. Traba egiten dio eta gainetik kendu nahi du. Alderantziz; sokarekin ibiltzera ohitutakoek ez dute jokorik ematen libre jarritakoan". Bestalde, txikiegiak badira ez dute sokaren pisua eta tirakadei aurre egiteko indar nahikorik eta azkar nekatuko dira. Handiegiak badira, berriz, motelak eta gatzik gabeak izan daitezke. Erdibidekoa topatu behar da.

Bertsolariekin gertatzen den antzera, zezen guztiak ez ei dira plazarako eginak. "3 edo 4 aldiz ateratakoan igartzen zaie nolakoak izango diren. Etxean noble eta otzanena kalean erasokorrena izan daiteke. Bakoitzak bere karakterra du. Orokorrean zezenak alperragoak eta larre-behiak finagoak dira. Ibilitako zezena bi bider jausten bada sokatik tira eginagatik ez duzu handik aterako, konfidantza galtzen baitu. Gero bere kasa ibiliko da, inori kasurik egin gabe".

Zezenak etxeko ikuiluan edo larrean dauden bitartean arriskutsuak al dira? Hona Agustinen erantzuna: "ez plazan bezain beste, baina tentuz ibiltzea komeni da. Bakarrik bazabiltza ez da normala erasotzea, baina egun txar bat izan dezakete edo ernegatuta egon borrokan



aritu direlako. Hobe da bizkarra eman gabe ibiltzea, badaezpada". Agustin zezenez inguratuta lasai asko ikusten dugula zaila da sinestea, baina animalia hauen begiradak badu maltzur puntu bat, bai!

Eta kalean, ezagutzen al dute nagusia, egunero jaten ematen dien eskua? Agustinen esperientziak dio ez dela komeni konfidantza gehiegirik hartzea. "Asko ibilitako batek bakarrik ikusiko banindu eta berba egingo banio, baliteke ahotsagatik ezagutzea, baina hobe distantziak mantentzea, zezena lekuz kanpo baitago". Zezenak soka eta guzti ez diela ihes egin aitortu digu, bai ordea soka eten. "Altzolan soka berri-berria estreinatu genuenekoa akorduan daukat. Auto baten paratxokean katiatu eta ebaki egin zen. Zorionez, Errepide Nazionalera atera baino lehen geldiarazi genuen. Mirari bat izan zen!"

### EGIN BEHAR EZ DENA

Sokamuturran sekula egin behar ez dena sokamutilen lana oztopatzea da. "Sokari eusteko koadrilakoak gaude. Hala ere, batzuetan gertatzen da gutako bat bakarrik geratzea eta norbaiti laguntza eskatu beharra". Azken aldian gutxitu den ohitura txar baten berri ere eman digu, "jendea gero eta mentalizatuago dagoen arren, badaude oraindik zezena geratzera ateratzen diren ganberro batzuk. Hiru edo lau lagunek elkar hartu eta apostuak egiten dituzte trago batzuk hartu ondoren. Zezena ez da hortarako, toreatzeko baizik. Kasurik egiten ez dutenez, handiagoa ateratzea da erremedio bakarra. Pazientzia handia eduki behar da". Mozkorrek buruhauste franko sortarazten dieten arren, kaleak labainkor egotea are arriskutsuagoa deritzo Agustinek. "Garbitzaileek goizaldera garbitzen dituzte gaueko parrandako zikinkeriak eta sokamuturra hasterako kaleak bustita egon ei dira. San Frantsizko kalean, batez ere, ezin da tente ere ibili. Zezenak ez dira inozoak eta pauso bakoitzean hankaz gora jausten direla







ikusirik, bazter-bazterretik joaten dira beldurraren beldurrez. Horrek ikuskizun guztia zapuzten du. Xirimiria egiten badu antzera gertatzen da. Aldiz, euria sarri erortzen bada gutxiago labaintzen da mangera pasata baino. Kale bustiak kalte handia egiten dio sokamuturrari".

**«Sekretua, lo ondo eta juerga gutxi eginda joatea da»**

Hiru orduz zezenaren atzetik ibiltzeko zerbait berezia gosaltzen al duten galdetu diogu. "Ez dago sekreturik. Lo ondo eta juerga gitxi eginda joatea. Goizaldeko 5:00etan esnatzen gara. Aurreko egunean aukeratutako abereak prestatu, enbolatu eta kamioira sartu". Ertzantza eta albaitariaren oneritzia pasa behar dute ondoren. Ikuskizun publiko eta jolas-ekintzak eskaintzen diren tokietan, zorrotz errespetatu behar dira segurtasun-neurriak. Halaxe ezartzen du Joko eta Ikuskizunen Legeak. "Albaitariak abereak osasuntsu dauden egiaztatzen du. Pisu eta tamaina egokikoak diren begiratzen dute. Gehienez 315 kiloko abereak atera daitezke sokamuturran. Ondo enbolatuta dauden ere begiratzen dute". Tradizio zaharra da adarrak enbolatzearena. "Lehen ganaduaren larru batzuekin egiten zen adarren estalkia eta adar banatan sartu ostean, soka batekin lotzen ziren bata besteari solta ez zitezen. Egun gomazko enbolatu batzuk ere atera dituzte eta horiek ere erabiltzen ditugu".

Dena prest dagoenean, sokamuturrari hasiera ematen dion txupinazoaren zai egotea besterik ez da geratzen.

LEHIAKETA

# Ander Sanchezek irabazi du jaietako programazioaren azala aukeratzeko lehiaketa

Urtero bezala, Elgoibarko Udalak San Bartolome jaietako programazioaren azala aukeratzeko lehiaketa antolatu du, eta aurtengoan Ander Sanchez izan da irabazlea. Anderrek 500 euroko saria jaso du. Guztira 12 lan aurkeztu dira, eta Kultura Sailetik jakinarazi digutenez, aurtengoan maila oso ona egon da. 250 euroko Sari berezia Iñaki Ovejerori eman diote.

Ander Sanchezek 22 urte ditu, eta hau ez da lehiaketa irabazi duen lehenengo aldia: “3. aldiz lortu dut lehenengo saria, eta sari berezia beste behin ere irabazi nuen”. Anderrek sokamuturra irudikatu du bere kartelean: “Gaia aldatzea gustatzen zait. Beste batzutan soka dantza eta Txiki Eguna irudikatu izan ditut. Aspaldi ez zuen sokamuturrak irabazten, horregatik aukeratu dut”. Arte Ederrak ikasten ari den gazte honek erakutsi du artista sena daukala, eta etorkizunean diseinu grafikoaren munduan lan egitea gustatuko litzaiokeela kontatu digu.






## Artista txikiak

Aurtengoan ere ez du jende askok parte hartu umeen kartel lehiaketan. Iaz bost kartel aurkeztu ziren lehiaketara, eta aurten sei. Kultura Sailetik jakinarazi digutenez, seiak izan dira sarituak: Maite De Pablo, Joana Rodriguez, Lide Baz, Maria Ruiz De Gauna, Nerea Bastida eta Nora Bastida.

Sari banaketa gaur, San Bartolome bezpera eguna, arratsaldeko 20:30ean izango da Udaletxeko Pleno Aretoan.

DEBAPE
INPRIMATEGIA
komunikazio grafikoa
• DISEINU GRAFIKOA
• OFFSET LITOGRAFIA
• FOTOKONPOSIZIOA
• PUBLIZITATE DISEINUA
• ERA GUZTIETAKO IRAGARKI KOMERTZIALAK
• INPRESIO DIGITALA
Ondo pasa jaiak!
Sigma industrialdea.
Xixilion 2 - 2. solairua - 7 lokala - **ELGOIBAR**
Tel.: 943 74 40 58 • Faxa: 943 74 41 78
E-posta: debape@telefonica.net

NORFO
Ondo pasa jaiak!
• ELKARTEEN ALDAKUNTZA ELKARTZE ETA ERAKETA.
• LAN, KONTABILITATE eta FISKAL AHOLKULARITZA.
• ALOKATZE KONTRATUAK
• JUBILAZIOA (Pentsioak)
P. M. Urruzuno, 6. Tel: 943 74 31 40 Faxa: 943 74 41 23

ETXEPE
MEKANIZATUAK
MEKANIZATU HAUNDIAK
LAN BEREZIAK
Ibaitarte Industrialdea, A2
Tel.943 74 12 97 - 74 06 64
Faxa 943 74 43 21
Web orria: www.etxepe.com
e-posta: etxepe@etxepe.com

ELGOIBARKO ERREHABILITAZIO FUNTZIONALA

# ERREHABILITAZIO ZENTRUA

MUTUA-ASEGURUAK ETA ABARREKIN KONTZERTATUA

MEDIKU ERREHABILITATZAILEA: DRA. MARIA ETXANIZ

- Fisioterapia Espezializatua
- Errekuperazio Funtzionala
- Masoterapia
- Osteopatia
- Gorputz Balorazioa
- Kirol Fisioterapia
- Hidroterapia
- Amatasun Prestakuntza
  Inkontinentzia
  Logopedia, etab.

(CRF/ Eibar)







San Inazio, 2
ELGOIBAR
Tel./Fax: 943 74 33 74

ELGOIBARKO ERREHABILITAZIO FUNTZIONALA

Gabi jatetxea






Ez galdu
San Bartolomeetarako
prestatu dugun
menua!

Nafarroa enparantza • Tel.: 943 74 12 30

# Gremioen GIDA

## Aroztegiak

**Biena**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

**Etxekit**
Erreformak-proiektuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ 943 74 43 47

**Garcia**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

**Imar**
Erreformak
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

**Lodoso**
Leihoak
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia 3. zenb.
☎ 943 74 34 90

**Soraluze**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

**Ulazia**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47

## Proiektu eta erreformak

**Estudios Arrillaga**
Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698

## Iturgintza, berogailua, gasa, eguzki energia eta klimatizazioa

**Ongi**
Olaso Poligonoa,
15-68 pabiloia
☎ 943 74 28 80

**Pagoaga**
San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

**Pagoerrota**
Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44
☎ 659 33 43 23

**Tellabide**
Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 943 75 50 62
☎ 607 75 50 62

**Zaldua**
Urasandi, 26
☎ 943 74 05 30

**Zubizarreta Instalazioak**
Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89
☎ 650 58 61 44

## Igeltseritza

**Antonio Markez**
Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

**E. Arandia**
Urasandi, 17
☎ 605 70 52 04

## Elektrizitatea

**Aramar**
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

**Azpeleta**
San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

**Urzelai**
Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76

## Pinturak

**Biok dekorazioa S.L.**
Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

**Ipintza**
Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40/607 74 04 40

## Isolamenduak

**Glas Control S.L.**
Olaso 27, 47. pabiloia
☎ 943 74 30 94

## Indusketa lanak

**Lekunberri Indusketak**
Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32
koldolekunberri@hotmail.com
www.excavacioneslekunberri.com

*Jaietan ondo pasatu eta mahaian gozatu!*




Zatoz San Bartolomeetarako



prestatu dugun

menu

berezia

dastatzera!

**Belaustegi Baserria**

**JATETXEA**

San Migel gaina • 20870 ELGOIBAR

Tel.: 943 743 102 • Faxa: 943 743 641

Erreserbak 943 74 31 02 telefonoan


ESTUDIOS
ARRILLAGA
Proiektu eta erreformak
Gremioen zuzendaritza
Altzarigintza osoa
Arragueta 12. EIBAR
Tel. 943 20 06 98
Errosario 15. ELGOIBAR
Tel. 943 74 40 19


MADIGAN´S
IRISH PUB
Garagardoak: GUINES
MURPHIS
PAULANER
Gosariak • Pintxoak • Bokatak
Bernardo Ezenarro, 2 behea • ELGOIBAR
Tel.: 619 345 558




# San Bartolomiak 2005

# EGITARAUA



## alkatearen *agurra*

Berriro ere iritsi da uda, opor sasoia, eta horrekin batera, gure San Bartolome jai kutunak. Aurreko urteetako agurrak irakurtzean, konturatu naiz, nolabait ere, adierazi dizuedala jaien eta udalaren ibilbidearen inguruan zer sentitzen dudan, eta ez nuke, esandakoa errepikatu nahi. Baina, era berean, ez nuke nahi eguneroko lanaren ilusioa galdu dudala uste izan dezazuenik. Zinez diotsuet: ziur naiz hartutako erabaki gehienek eta abian ditugun proiektuek bizi-kalitatea ez ezik elgoibartarrok merezi dugun herria ere ekarriko digutela.

Kultura Sailak haur, gazte zein helduentzat ahalik eta programarik zabalena eta aberatsena antolatzeko ahalegina egin du. Gu guztiok jator eta errespetuz dibertitzen bagara, jai giro aparta eta festa arrakastatsuak izango ditugu.

Aurten ere, zapi gorria lepoan lotzen dugunean, gure arteko desadostasunei bizkarra emateko gai izan gaitezela, eta gure herriaren parte garela adierazten duen sentimendu sakon horretan bat egin dezagula. Horrela, bete-betean jaiez gozatu ahal izango dugu.

**Gora San Bartolome!**

**Marivi Agirregomezkorta**

karkizano
San Frantzisko, 14 – Tel. 943 74 05 49

Arrieta
San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

Lanbroa
Gosariak
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7tik aurrera
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8tik aurrera
Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

CORDON VILARCHAO
DEKORAZIOA
Kanpo eta barneko estaldura
Zoluen kolokazioa
Lakadura: egur, aluminio, P.V.C.
Pintura orokorra
San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olasope kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa
Tel. 943 740 570

Bukatu S. Coop.
Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR
MEKANIZATUEN TAILERRA

URKIDI AHOLKULARITZA
KONTABILITATE
LAN
FISKAL
Kalamua, 12 · ELGOIBAR
Tel-Faxa: 943 74 18 91
ASEGURUAK

# SAN BARTOLOMIAK 2005

## ABUZTUAK 22, *astelehena*

**20:00 "PAISAJE ANÓNIMO" ARGAZKI ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA**
Kultur Etxeko erakusketa gelan, irailaren 10era arte.
Egilea: Carlos Cánovas

# San Bartolome Bezpera

## ABUZTUAK 23, *martitzena*

**9:00 LIX MEMORIAL ETXANIZ TXIRRINDULARI LASTERKETA**
Amateurrentzat (20-23 urte). Gure Bide Elkarteak antolatuta.
Irteera: Foruen Plazan
Helmuga: Santa Klaran 12:00etan



**13:00 TXUPINAZOA eta KANPAI JOTZEA**
Ikurrina jasoko da jaiei hasiera emateko.
Foruen Plazan.

**Jarraian,** Mauxitxa Txarangaren kalejira.



# EGITARAUA



**16:00-20:00 HAURRENTZAKO PARKEA**
Foruen Plazan eta Aita Agirre Plazan.
(Euria egiten badu, Ikastolan).

**16:30 IZUGARRIZKO SORPRESA**
Zaharren Biltokian.

**17:00 ERRALDOI eta BURUHANDIEN KALEJIRA**
Herriko dultzaineroekin batera.

**18:00 FUTBOL PARTIDUA MINTXETAN**
C.D. Elgoibarrek antolatuta.

**19:00 ESKUBALOI PARTIDUA**
Arrate-Teka Cantabria
Olaizaga Kiroldegian

**20:00 SALBEA PARROKIAKO ABESBATZAK ABESTUTA.**
Udalbatza San Bartolome Parrokiara joango da, aurretik Alkate Soinua joz, Udal Txistulari Taldeak lagunduta.



**Jarraian,** Kartel Lehiaketako irabazleen sariak banatuko dira Udaleko Pleno Aretoan.

**22:30 "GATIBU" ETA "URGABE"**
Foruen Plazan.


Malape taberna
orain astegunetan
San Frantzisko, 60
tel. 943 74 19 43

PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilion, 2 · 3.sotoa ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

Iriondo TABERNA
Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu
eta asteburuetan 9:00etan
Pedro Muguruza, 2 · Tel: 943 74 00 15

JOSE pinturak
(Txema)
Mota guztietako pintura
eta enpapelatuak.
Zoluak, moketak, sintasola,
kortxoa, etab. jartzen dugu.
San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14

MEKANOSA
Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar
★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
★ MULTIKOPISTAK
★ FOTOKOPIADORAK
★ PLANOEN BIRREGILEAK
★ ERLOJU INDUSTRIALAK
★ MARRAZKETA MATERIALA
★ INFORMATIKA
★ FAX

TERAPIA FAMILIARRA
(bikote eta banakako terapia)
PSIKOLOGIA
HARREMAN ARAZOAK: bikotearekin, familiarekin edo kideekin
UMEEN ETA NERABEEN ARAZOAK
ANTSIETATEA
DEPRESIOA
ESTRESA
ELIKADURA ARAZOAK
AUTOESTIMA




## San Bartolome Eguna

**ABUZTUAK 24,** *eguaztena*

**9:15 HERRIKO DULTZAINEROEN DIANA**



**9:45 UDAL TXISTULARI TALDEAREN DIANA**

**10:00 UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA**

**10:45 ELGOIBARKO ZAINDARIAREN PROZESIOA**
Udal Musika Bandak, Txistulari Taldeak eta Udalbatzak lagunduta. Denak batera, San Bartolome Parrokiara joango dira Meza Nagusira. Mezatan Parrokiako Abesbatzak kantatuko du.

**Jarraian, SOKA DANTZA** Haritz Euskal Dantzari Taldearekin eta Udal Txistulari Taldearekin Foruen Plazan.



# EGITARAUA



**Ondoren, UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA**
Foruen Plazan.
Zuzendaria: Jose Antonio Osoro Agirre.

**16:30-21:00 HAURRENTZAKO PARKEA**
Foruen Plazan eta Aita Agirre Plazan. (Euria egiten badu bertan behera geldituko da).

**17:00-19:00 ZALDI LASTERKETA IKUSTEKO IBARTXIKI BASERRIRA IGOERA ZALGURDIAN**

**17:30 ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA**
Herriko dultzaineroekin batera.

**18:00 PROFESIONALEN ESKU-PILOTA PARTIDUAK**
Ikastolako Frontoian.



**19:00 ZALDI LASTERKETA**
Ibartxiki baserrian.

**19:30 IMPERIAL DE NOCHISTLÁN MARIATXIEN KALEJIRA**

**23:00 SU ARTIFIZIALAK**
Zaragozana Pirotekniarekin IMHko aparkalekuan.

**Jarraian, IMPERIAL DE NOCHISTLÁN MARIATXIAK eta DUO PLAENTXI**
Foruen Plazan.

**Goizaldeko 5:30etan, TXOKOLATE JATEA**
Madalako Parkean.

# [ OSASUN GIDA ]

## MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda
(Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak)
San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00
Sanatana Dharma Yoga Elkartea
Urasandi, 9 • Tel: 943 74 85 93 (Idoia) / 685 722 131
Astearte eta ostegunetan: 10-11:30/15-16:30/18-19:30/20-21:30
*Mendaro*
Astelehen eta asteazkenetan: 10-11:30/15-16:30
Astelehen eta ostegunetan: 20:00-21:30

## OPTIKAK

Ikus Optiko-optometrista
San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00
Uzuri
(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)
San Frantzisko, 21 • Tel: 943 74 03 59
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

## ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa
San Frantzisko, 12 • Tel: 943 74 35 62
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

## HORTZ KLINIKAK

Nora Bastida
Azpilgoeta, 5 (MENDARO) Tel: 943 03 35 75
Astelehenetik ostiralera: 9:30-13:00 / 15:30-19:30
Gerardo Natenzon
Santa Ana, 20 behea - Tel: 943 74 36 35
Ordutegia: 9:00-13:00 / 15:30-19:30
Irale
Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar) Tel: 943 74 36 79
Zeharkalea, 8 behea (Ermua) Tel: 943 17 71 34
e-posta: irale@irale.com - weba: www.irale.com

## FISIOTERAPIA

Olatz Fisioterapia
(Minarentzako tratamendua, erredukazio posturala, prebentzioa, erlajazioa, masaia, reiki)
San Roke, 1 - Tel. 696 821 149
Egunero: 9:00-13:30 / 15:00-20:00

## PODOLOGOAK

Iñaki Rivero
San Bartolome, 28 • Tel: 943 74 32 90
Ostegunetan: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

Oinberri
Errosario kalea, 25 • Tel: 943 74 17 95
Astearte, ostegun eta ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

**Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra**

Lajanez

Pintxoetan aukera zabala
P. Muguruza, 7 Tel: 943 74 16 76

Skandalo
OIHALAK MERTZERIA
NEURRIRA EGINDAKO JANTZIAK
Aupa San Bartolo!
San Bartolome, 19 • Tel: 943 74 35 95

JULENE
POLTSOAK eta OSAGARRIAK
San Frantzisko, 43 Tel.: 943 74 42 53

ARBELOA
INMUEBLE AGENTZIA
Jai zoriontsuak!
INMOBILIARIA
arbeloa@telefonica.net
San Frantzisko, 34
Tel.: 943 74 84 27

- Kontabilitatea
- Asesoria fiskala
- Asesoria laborala
- Abokatuak
ASESORIA GOIAR
San Bartolome, 1
Tel: 943 74 26 74 / Faxa: 943 74 21 29
asesoriagoar@euskalnet.net

# Txiki Eguna

**ABUZTUAK 25,** *eguena*



**7:30 DIANA**
Mauxitxa Txarangarekin eta Herriko dultzaineroekin.

**Ondoren, SOKAMUTURRA** Arnoren zezenekin.



**Jarraian,**
**SALDA eta TXORIZOA**
Zubi-ondo, Gure Bide, Karakate eta Herri Gain elkarteek eta Batzokiak banatuta.



# EGITARAUA



**12:00 MAUXITXA TXARANGAREN KALEJIRA**



**17:30 HAURRENTZAKO ZEZENTXOAK eta PONIAK**
Sigman.

**18:00 PROFESIONALEN ESKU-PILOTA PARTIDUAK**
Ikastolako Frontoian.

**19:00 TAMSNA TALDEAREN KALEJIRA**

**22:30 EGAN TALDEAREKIN DANTZALDIA**
Foruen Plazan.


**JOSE MARI ARANZAMENDI "KATEI"**

**EDARI BANATZAILEA**

INSALUS

eva

GURELESA

SANTA ANA, 41

☎ 943 74 10 41
Mobila: 659 77 23 89

# SAN BARTOLOMIAK 2005

## Gazteen Eguna

### ABUZTUAK 26, *barixakua*

**7:45 DIANA**
Herriko Dultzaineroekin.

**Ondoren, SOKAMUTURRA** Arnoren zezenekin.

**Jarraian, SALDA eta TXORIZOA**
Zubi-Ondo, Gure Bide, Karakate eta Herri Gain elkarteek eta Batzokiak banatuta.

**12:30 GOITIBEHERA JAITSIERA**
San Roken, Gazteen Gurutze Gorriak antolatuta.



**13:00 MAUXITXA TXARANGAREN KALEJIRA.**

**16:30- 19:00 FUTBOL PARTIDUAK ZEZEN ENBOLATUEKIN**
Sigman.



**19:00 TXATUNGA BENBEREN KALEJIRA**

**23:00 KAUTA ETA KOMA TALDEEN KONTZERTUA**
Foruen Plazan.


IRATXO
ROCK-KAFEA
San Frantzisko, 41 · Tel. 943 74 02 57

OLATZ, s.l.
SUKALDE eta KOMUNERAKO ALTZARIAK
Aulki eta mahaietan aukera bereziak
Pedro M. Urruzuno, 8 Tel: 943 74 38 44

MUEBLES
Almacén
Tel./Faxa: 943 742 941
Urasandi, 2 - 1
Elgoibar


Ekor
Aholkularitza Juridikoa & Ekonomikoa
Mendarozabal Industrialdea z/g
Tarteko solairua 2B
Tel.: 943 75 52 24 · Faxa: 943 75 52 32
20850 Mendaro
- Abokatu zerbitzuak
- Kontabilitatea
- Nominak
- Aseguru Sozialak

Ondo pasa jaiak!

# EGITARAUA

## Baserritarren Eguna

### ABUZTUAK 27, *zapatua*

**9:30 GIPUZKOAKO LIMUSIN GANADU LEHIAKETA**
Plaza Txikian.



**10:00 ZABALE ETA BALTZOLA ANAIAK TRIKITILARIEN KALEJIRA**

**11:00 XXII. SAGARDO LEHIAKETA ETA DASTAKETA**
Foruen Plazan, Sallobente Elkarteak antolatuta.

**12:00 GANADU LEHIAKETAKO PARTAIDEEI ONGI-ETORRIA**
Foruen Plazan, Haritz Dantzari Taldearen eta Udal Txistulari Taldearen eskutik.

**13:00 LIMUSIN ABELGORRIEN ENKANTEA**
Aita Agirre Plazan.

**14:00 SARI BANAKETA**
Foruen Plazan.

**14:30 BASERRITARREN ANAIARTEKO BAZKARIA**
Zaharren Biltokian.

**17:00 ZABALE ETA BALTZOLA ANAIAK TRIKITILARIEN KALEJIRA**

**18:00 SAN BARTOLOMEETAKO VII. HARRIJASOTZE TXAPELKETA**
Foruen Plazan.

**23:00 XUKAN TALDEAREN "ITURRIAN ZER DAGO?" IKUSKIZUNA**
Foruen Plazan.




TXANKAKUA

**ELGOIBARKO MERKATARI eta ZERBITZU ELKARTEAren izenean**

| | |
|---|---|
| AGIRRE SASTRERIA | 740341 |
| APRAIZ LURRINDEGIA | 740744 |
| ARANBURU BITXIDENDA | 742535 |
| ARAURI LURRINDEGIA | 741789 |
| ARRIETA MODAK | 740849 |
| AZKUE ARGAZKI DENDA | 740848 |
| AZPELETA ELEKTRIZITATEA | 741238 |
| BILBAO EXPRESS BIDAIAK | 743912 |
| CASA ASTIGARRAGA | 743268 |
| DORI URDAITEGIA | 741192 |
| ECENARRO MERZERIA | 742619 |
| EIZAGUIRRE OKINDEGIA | 740488 |
| FARMA APRAIZ | 743608 |
| FERPI MODAK | 740815 |
| G & M JANTZIDENDA | 744617 |
| GARATE JANTZI-DENDA | 741129 |
| GARBIÑE ESTETIKA | 743132 |
| GOAR AHOLKULARITZA | 742674 |
| GOFI | 744653 |
| GOIARA DROGERIA | 741133 |
| GOROSTIZA LIBURUDENDA | 740388 |
| GORROÑO DEKORAZIOA | 740191 |
| HURBIL ZERBITZU INFORMATIKOAK | 740850 |
| IDARRAGA KAFEAK | 740533 |
| IKUS OPTIKA | 743734 |
| IRIONDO ALTZARIAK | 741234 |
| IRIONDO KIROLAK | 740956 |
| JULENE | 744253 |
| KALA LORADENDA | 744516 |
| KARKIZANO | 740549 |
| LA INDUSTRIAL GUIPUZCOANA | 740139 |
| LANBROA | 740806 |
| LANDA HARATEGIA | 742758 |
| LAZTANA | 740091 |
| LEIGAR ELEKTRAGAILUAK | 740054 |
| LEIZABE ELEKTRAGAILUAK | 741337 |
| LETE | 744199 |
| LOMBOK | 669731811 |
| LUVIK OINETAKOAK | 744345 |
| MG BURDINDEGIA | 740831 |
| MURUAMENDIARAZ | 740345 |
| NATURHOUSE | 741078 |
| ORTOPEDIA ITZIAR SARASKETA | 743562 |
| OSORO OINETAKOAK | 740235 |
| OSTARKU ARGAZKI DENDA | 740646 |
| PATXI HARATEGIA | 743504 |
| PITXINTXU | 743206 |
| SAGAS ZAPATADENDA | 531350 |
| SARA JANTZIDENDA | 743555 |
| SARAGUI | 742942 |
| SIGLO XXI | 742306 |
| SKANDALO OIHALA ETA MERZERIA | 743595 |
| SOFTLAN | 748105 |
| URKIDI AHOLKULARITZA-ASEGUROAK | 741891 |
| UZURI OPTIKA | 740359 |
| XIGORTZE OPARIDENDA | 744341 |
| ZAZPI INFORMATIKA | 743787 |
| ZELETA BARAZKIAK | 743022 |

*Ondo pasa San Bartolome jaixak!*

Txarriduna
JATETXEA
Jaietako Menu bereziak,
Plater konbinatuak, Kazuelatxoak,
Bokadiloak...
Aupa San Bartolome!
Ermuaranbide, 1 · Tel. 943 74 04 90

BRONCES GARITANO, S.A
BRONCES GARITANO, S.A.
San Bartolome Jai zoriontsuak!
www.broncesgaritano.com/ broncesgaritano@telefonica.net
Olaso kalea, 15 · 20870 ELGOIBAR · Tel: 943 74 41 25/74 41 26

Aramburu
Bitxidenda
Ondo pasau San Bartolome jaixak!
San Frantzisko, 26 - ☎ 943 74 25 35

AZPELETA elektrizitatea
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ARGIZTAPENAK
- AUTOMATISMOAK
Ondo pasa Jaiak!
San Frantzisko 51, behea. Tel: 943 74 12 38

Orbea
Kafetegia
Ondo pasa Jaiak!
Pintxo bikainak!
San Frantzisko, 6 Tel: 943 74 31 17



# Jubilatuen Eguna

## ABUZTUAK 28, domekia

**7:45 IDIARENA**
Herriko Dultzaineroekin.

**Ondoren, SOKAMUTURRA**
Arnoren zezenekin, King-Kong parean hasita.



**12:30 JUBILATUEI ESKAINITAKO MEZA**
San Bartolome parrokian.

**14:00 JUBILATUEN BAZKARIA**
Olaizola kiroldegian, Gelatxo Orkestrak alaituta.



**19:00 DANTZA SOLTEKO LEHIAKETA**
Foruen Plazan.



**22:30 UDAL MUSIKA BANDAREN ESKUTIK DANTZALDIA**
Foruen Plazan.

# EGITARAUA

## Umeen Eguna

**ABUZTUAK 29,** *astelehena*

**10:15 HAURRENTZAKO ENTZIERROA**
Nafarroa Plazatik Foruen Plazaraino.

**10:30**
**ZEZENTXOAK eta PONIAK**
Foruen Plazan.



**11:30-14:00**
**MARRAZKI LEHIAKETA**
Elizako arkupeetan
Antolatzailea:
Gurutze Gorria

**14:00 HAURREN BAZKARIA**
Elizako arkupeetan. (Bakoitzak bere ogitartekoa eraman beharko du. Edaria eta postreak banatuko dira).

**Ondoren, MARSEL MAGOA**

**15:30 HAURRENTZAKO PARKEA**
Foruen Plazan eta Aita Agirre Plazan. (Euria eginez gero, Ikastolan).



**19:30 MARRAZKI LEHIAKETAKO SARI BANAKETA**
Foruen Plazan.

**Ondoren, ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA**
Mauxitxa Txarangarekin.

**22:00 XURDIN TALDEAREKIN UMEENTZAKO JAIALDIA**
Foruen Plazan.

**Elgoibarko Institutuak**
Arregitorre, 2
Tel.: 943 74 80 19
E-posta: bulegoa@elgoibarbhi.net
www.elgoibarbhi.net



eta
**Herri Eskolak**
Kalamua, 18
Tel.: 943 74 08 79



JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUETE!

# MERKATU PLAZA

## *Uste duzuna baino gehiago!*



**Amaia** FRUTADENDA



**Arantxa** eta **Marian**
FRUTADENDA



**TXILARRE** BARAZKIAK



**IBARRE** OKINDEGIA



**FRAILE** HARATEGIA



**MARI** HARATEGIA



**Amparo** HARATEGIA



**M. Angeles**
FRUTADENDA



**TXIRIBOGA** TABERNA



**Zabala** FRUTADENDA



**Zabala**
URDAITEGIA eta ARDANDEGIA

*San Bartolome jai zoriontsuak!*

LEIGAR ELEKTRAGAILUAK

M A N U  L E I Z A B E  L O Y O L A





TB · BIDEOA · HI-FI · DVD

*Salmenta eta zerbitzu teknikoa*

*Errosario, 8 · Tel. 943 74 00 54*

MH Makina Erremintaren Institutua
Instituto de Máquina Herramienta

**Ondo pasa 2005eko San Bartolome jaiak!**



**www.imh.es**

ER

Euskadi

API Burtsa informatikoa



317 api

GABILONDO

INMOBILIARIA AGENTZIA

Zuzenbidean lizentziatua

API { Edurne Gabilondo Loyola
Jose Mª Azpeleta Iturricastillo

*Jai zoriontsuak denoi*

San Frantzisko, 51-1esk ELGOIBAR • Tel: 943 74 44 67

# USUA

terraza





Pintxoak
Kazuelitak...

Giza Eskubideen plaza, 1 - Tel.: 943 74 16 00


*Ondo pasau SAN BARTOLOMIAK!*


# TOLETXE





Pedro Muguruza, 8 behea
Tel.: 943 74 10 12

# ILVNPE

San Frantzisko, 60 behea
Tel.: 943 74 01 93




Lanbroa
Pintxoak • Bokadiloak • Gosariak • Postreak
PLATER KONBINATUetan aukera zabala
Pedro Muguruza, 5
Tel. 943 74 08 06/943 74 38 11

TOYOTA
902 345 245
OPEL
902 345 123
CHEVROLET
902 345 225
HYUNDAI
902 345 335
AUPA SAN BARTOLOME!
EuskoAuto
TOYOTA
Giauto
OPEL
CHEVROLET
mendauto
HYUNDAI

ETXEKIT
Luis F. Beristain
SUKALDERAKO ALTZARIAK
xey
banatzaile ofizila
Ondo pasa jaiak!
5 urteko bermea
Arrillaga z/g - Elgoibar
Tel. 943 74 43 47

URDAITEGIA - JANARIDENDA
DORI

· Produktu iberikoak
· Hestebeteak - Urdaiazpikoak
· Kontserbak
· Gaztak / Pateak

Errosario kalea, 29 · Tel.: 943 74 11 92



IMPRENTA ARRILLAGA

Inprimaketa:
Offset digitalean

Ezkontza gonbidapenak
Hileta oroigarriak
Bisita txartelak
Kartelak
Etiketak...

Fotokopiak
Koloretan
Txuri beltzean

Ondo pasa jaiak!!

Trenbide kalea, 13 behea
ELGOIBAR - 20870 (Gipuzkoa)

Tel: 943 74 01 87 • Faxa: 943 53 13 54 • Sakelekoa: 677 42 55 60
E-posta: arrillagasl@euskalnet.net

Marem

Pintxoak
Bokatak
Razioak
Entsaladak



Bernando Ezenarro, 4
Tel.: 943 74 82 48

Ondo pasau San Bartolomiak!

## ADRIAN ELUSTONDO KAUTA TALDEKO BAXUJOLEA

# «Kontzertu asko eman ditugu eta diskoa ondo saldu da»





*Andoaingo laukote gazte batek osatzen du Kauta taldea: Mikel (ahotsa eta gitarra) Gorka (bateria), Xabi (gitarra) eta Adrian (baxua). Euskadi Gazteako Maketa Lehiaketan entzulearen saria jaso zuten iaz, eta urrian grabatu zuten "Izan zaitez zu" izeneko diskoa. Gazteen Egunean, Foruen Plazan eskainiko dute kontzertua.*

**Noiz hasi zineten musika munduan?**

Ikastolatik ezagutzen ginen, eta musika betidanik gustatu izan zaigu. Gainera, Andoainen musikarako zaletasun handia dago, eta taldetxo bat sortzea erabaki genuen. 2001. urtean sortu genuen Kauta.

**Nondik dator Kauta izena?**

Hasieran Uste izena jarri behar genion. Lagun batek hitz honen sinominoak esan zizkigun, eta horietako bat *kauta* zen. Iparraldeko hitza da, eta gehiago gustatu zitzaigunez, izen hori jarri genion.

**Posiblea al da musikatik bizitzea?**

Oso zaila da Euskal Herrian musikatik bizitzea, guretzat momentuz hobby bat da. Gorka ikasten ari da, Mikel eta Xabik lan egiten dute, eta ni orain arte lanean aritu naiz, baina aurten unibertsitatera joateko asmoa daukat.

**Zein musika estilo egiten duzue?**

Denetarik egiten dugu. Metal hiper melodikoa egiten dugula esaten digute askok, baina ez da egia. Abesti guztiak desberdinak dira, batzuk hardcore estilokoak dira, beste batzuk poperoagoak... ez daukagu estilo finkorik.

**Euskadi Gazteako Maketa Lehiaketan entzulearen saria irabazteak zer suposatu du?**

Bultzada handia eman digu, ate mordoa ireki dizkigu. Gure abestiak askoz gehiago entzuten dira irratian, kontzertu gehiago eskaintzeko aukera eman digute, eta diskoa grabatzeko erraztasunak ere bai. Jende gehiagok ezagutzen gaitu.

**[ «Ez daukagu musika estilo finkorik, denetarik jotzen dugu» ]**

**Nolako harrera izan du zuen lehenengo diskoak?**

Oso ona. Kontzertu asko eman ditugu, eta ondo saldu da. Musika munduan dagoen krisia kontuan izanik, gustura gaude. Internetekin pirateria handia dago, eta gero eta disko gutxiago erosten dira.

**Zer eskainiko diguzue Gazteen Egunean?**

Gipuzkoan emango dugun azken kontzertua izango da. Diskoko abestiak eta maketakoak joko ditugu.

**Ezagutzen al dituzue Elgoibarko jaiak?**

Ez, ez gara sekula bertan izan. Larunbat batean egon nintzen ni aspaldi, baina ez dugu sekula bertan parrandarik egin. Aurten izango da gure estreinaldia.

**Gogoan al duzue zuen lehenengo kontzertua?**

Bai, Andoaingo Gaztetxean izan zen. Zarauzko talde bat, alemaniar bat eta hirugarrena yankia. Gure lagun guztiak han izan ziren, oso ilusionatuta atera ginen. Oso bitxia, baina polita izan zen.

**Aurrera begira, zein dira zuen asmoak?**

Udaran 15 egun inguruko oporrak hartuko ditugu, eta abuztu erdialdean kontzertuak ematen hasiko gara berriz ere iraila bukaerara arte. Gero, bigarren diskoa prestatzen hasiko gara.

elkarrizketa...

MAALAKO JAI BATZORDEA ORAIN URTE BATZUK SORTU ZEN HERRIKO HAINBAT ELKARTEK DIRU SARRERA PROPIOA LORTU ETA GIRO ALTERNATIBOA ESKAINTZEKO ASMOZ. SUGAR ETXANIZ BATZORDEKO KIDEA DA ETA BERAREKIN IZAN GARA "GUNE ASKATUAREN" BERRI IZATEKO.

# Sugar Etxaniz

## "Maalan antolatzen dugun berbena da herritarrak kalean dantzan aritzen diren urteko egun bakarra"

**Gaur egun zein elkartek osatzen dute Maalako Jai Batzordea?**

Urtetik urtera batzuk atera eta berriak gehitu egiten dira. Gaur egun bost elkarte daude: Gestorak, Gazte Asanblada, LAB, Einbiou eta Elgoibarko Izarra.

**Zergatik sortu zen?**

Gehienbat diru sarrera propioak ez dituzten herriko elkarteek dirua lortzeko eta, bestetik, herritarrei giro ezberdina eskaintzeko, egitarau ofizialetik kanpo geratzen dena. Herritarrek eta herritarrentzat antolatutako egitaraua da. Egia da antolatzeko orduan guk nahiko genukeena baino jende gutxiago hurreratzen dela baina festetan asko eta asko hurreratzen dira eta parte hartzea zabala da.

**San Bartolome jaietarako soilik elkartzen al zarete?**

Aurten Trinitate jaietan ere antolatu ditugu pare bat gauza eta asmoa da datozen urteetan Trinitadeez gain urtean zehar ere bestelako ekintzak antolatzea.

**Ze aurrekontu duzue?**

Gutxi gorabehera 6.000 euro izango dira. Txosnetan ateratzen den diruaren zati bat aurrekontua ordaintzeko izaten da.

**Udalaren laguntzarik ba al duzue?**

Garai batean dirulaguntzatxo bat ematen ziguten baina limosnatxo bat zen eta gainera baldintzak jartzen zizkiguten eta azkenean ezer ez onartzea erabaki genuen. Horrez gain, iaz tabernariei ere

BIKAIN AHOLKULARITZA

- Zerga-aholkularitza
- Lan-aholkularitza
- Kontabilitate-aholkularitza

Tel./Faxa: 943 74 45 57
e-posta: bikain@fonocom.es

Antonio Arrillaga, 4 behea
20780 ELGOIBAR



borondatea eskatu genien eta alde horretatik batzuk oso-oso eskuzabal ibili ziren. Poztekoa da, ze tabernarientzat ere benetan aproposa da Maalan kontzertuak antolatzea.

**Zer azpimarratuko zenuke egitarautik?**

Nik uste lorpenik handiena dela Txiki Egunean egoten den berbena. Urtean zehar egun bakarra da herritarrak kalean dantzan aritzen direla.

**Eta aurten, berrikuntzarik bai?**

Musikaz arduratuko den norbait topatu nahi genuke. Hori izan da erronka azkenaldian, musikari merezi duen garrantzia eman eta horretaz arduratuko den norbait jartzea, beti ere, txosnetan aurkitzen den musika alternatibo horren ukitua galdu gabe, hau da, gainontzeko tabernetan dagoen musikatik aparte.

## GUNE ASKATUA EGITARAUA

**Abuztuak 23 (asteartea)**
18:00etan jaiei hasiera emateko: Bertsolariak eta trikitilariak.
Jarrian trikipoteoa bertsolariekin.
Iluntze aldean Perkusio emanaldia.

**Abuztuak 24 (asteazkena)**
23:00 Kontzertua, Argamboys eta beste talde bat.

**Abuztuak 25 (osteguna)**
15:00 Preso eta iheslarien aldeko bazkaria.
Arratsaldean Dantzaldia Nekin taldearekin gauerarte.

**Abuztuak 26 (ostirala)**
12:30 Triki poteoa eta ondoren Bazkari Herrikoia (Gazteria aurrera).
Bazkalostean Zirkua
Gaualdean Kontzertua Altxamendu eta Amplitude taldeekin.

**Abuztuak 27 (larunbata)**
00:00 Manifestazioa "Euskal preso eta iheslariak etxera" lemapean.




Santa Klara, 16 behea
Tel.: 943 74 16 56 / 943 74 01 17
Mugikorra: 608 77 07 01

VII. HARRI JASOTZE TXAPELKETA

# 2.700 euro baino gehiago banatuko dira Txapelketan

Aurtengo San Bartolome jaietan ere herri kirolak izango du bere tartetxoa. Baserritarren Egunean, abuztuaren 27an, San Bartolomeetako VII. Harri Jasotze Txapelketa jokatuko da Foruen Plazan, arratsaldeko 18:00etatik aurrera. Partehartzaileek hiru proba burutu beharko dituzte: 100 kiloko zilindro zaharra (3 minutu), 100 kiloko kubikoa (3 minutu) eta 100 kiloko bola (3 minutu). Hiru proba hauek batuta, harrijasotze gehien egiten dituena izango da irabazlea. Aurtengoan 2.760 euro banatuko dira saritan.

1. **saria:** 760 euro eta garaikurra.
2. **saria:** 600 euro
3. **saria:** 520 euro
4. **saria:** 400 euro
5. **saria:** 270 euro
6. **saria:** 210 euro





**Baserritik, txotx!**

Sallobente Elkarteak antolatuta, bestalde, XXII. Sagardo Lehiaketa eta Dastaketa izango da goizeko 11:00etatik aurrera. Foruen Plaza sagardotegi bihurtuko da larunbat goizean. Bertara hurbiltzen diren guztiek sagardo desberdinak dastatzeko aukera izango dute. Txotx!

IDARRAGA
KATEAK
Eguneroko errealdiak
Ondo pasa jaiak!
Olaso industrialdea, 15 (55 E lokala)
Tel. 943 74 05 33 - 943 74 36 39

albe
LAUKETAK - MORTASAKETAK
BROTXAKETAK
NONIUS GRABATUAK
ONDO PASAU FESTETAN!
Sigma Industrialdea · Xixilion, 2 beheko solairua 9
Tel. 943 743 286 ELGOIBAR (GIPUZKOA)
talbe@euskalnet.net / www.albesl.com


PACO HERRERO · BRUNO PREMI · CLARKS · HISPANITAS · PANAMA JACK · PIKOLINOS · CAMPER · NATURE · HOMERS · WONDERS · CAFENOIR
Udazkeneko moda
zapatetan
ZAPATADENDA
San Frantzisko, 34 · Tel.943 740 235


SAHATZU HARATEGIA
ELGOIBARKO ETA INGURUKO BASERRIETAKO BEHI OKELA DAUKAGU
JON ULAZIA
"SAHATZU"
Santa Ana, 5 · Tel. 943 742 048 · Elgoibar


URZELAI
ELEKTRIZITATEA
ARGIZTAPENA
URZELAI
Santa Ana, 12-14 · Tel.: 943 74 13 76 · (mobila) 608 77 40 32


HIZKUNTZ
Ingelesa, Alemana, Frantsesa, Holandesa, Portugesa, Italiera, Txinoa
SOLUZIOAK
IRAILETIK HASITA
2004-2005 KURTSOKO
IKASTAROAK
Maila guztiak
Titulu ofizialak
Esperientzia duten jatorrizko irakasleak
Talde murriztuak
Ikastaroak atzerrian
Multimedia gela
ENPRESA ·
ITZULPEN ETA
INTERPRETAZIO ZERBITZUAK
Esperientzia zabala duen lan taldea
•Teknikoa (makina-erreminta)
•Komertziala
•Nazioarteko proiektuak
Goi-teknologiaren erabilera
Zerbitzu azkarra eta kalitatezkoa
Prezio lehiakorrak
Ondo pasa jaiak!
INDUSTRY
LANGUAGE
SERVICES
IMH Eraikuntza
Azkue Auzoa, 1–P.K. 37
E-maila: ils@ils.es
Tel.943 744 040 Faxa: 943 741 654

LIX Etxaniz Memoriala

# Pedal kolpez hasiko dira jaiak

Etxanizen oroimenezko Txirindulari lasterketak San Bartolome jaien zurrunbiloan murgiltzeko balioko digu beste urtebetez.

San bartolome Bezpera Eguneko egitarauko lehen ekintza goizeko 9:00etan hasiko da.

Gure Bide Elkarteak antolatzen duen lasterketa 59. ediziora iritsi da dagoeneko. Elite mailako amateurrentzako (20-23 urte) lasterketa "Lehendakari Txapelketa"rako puntuagarria da eta 110 txirrindularik parte hartzea espero dutela adierazi digute antolatzaileek.

Ibilbidea, berriz, honakoa izango da: Elgoibar, Maltzaga, Soraluze, Bergara, San Prudentzio, Arrasate, San Prudentzio, Bergara, Soraluze, Maltzaga, Elgoibar, Mendaro, Deba, Itziarko gaina, Zestoa, Azpeitia, Azkoitia, Azkaratera igoera (errepide berritik), Azkarateko gaina, errepide zaharretik jaitsiera, Elgoibar, Azkaratera igoera (errepide berritik), Azkarate gaina, jaitsiera errepide zaharretik, Elgoibar (Txarriduna) eta helmuga Santa Klara kalean.

Guztira 115 kilometro. Etxaniz Memoriala irabazitako txirrindulari ohi batek banatuko ditu sariak, duela 3 urte hasitako ohiturari jarraituz. Antton Barrutia izan zen etortzen lehena. Txomin Perurena izan zen iaz eta Antton Aiestaran donostiarrari tokatuko zaio aurten.






*1961eko maiatzaren 28ko lasterketako irudiak dira honakoak.*


talleres ZAILDU S.L.

MAKINARIA KONPONKETAN ESPEZIALISTAK
Mandrinadorean planoekin egindako lanak
Fresadora, Taladroa, Tornoa eta Errektifikadora

San Bartolome jai zoriontsuak elgoibartar guztioi!

Santa Klara, 40 – Tel: 943 74 07 60 – Faxa: 943 74 39 95

Gabiola GESTORIA
• Ibilgailuak
• Garraioak
• Gai orokorrak

AXA ASEGURUAK

San Frantzisko, 22 - Tel-Faxa: 943 74 07 97 - ELGOIBAR

BOLINTXO OKINTEGIA

San Frantzisko, 17 - Tel-Faxa: 943 74 33 78 - ELGOIBAR

KONTZERTUAK

# JAIETAN MUSIKAZ BLAI!!!

*Aurtengoan ere badago non aukeratu! San Bartolome jaiak musikaz blai datoz, eta bakoitzak bere gustuko musika aukeratu ahal izango du. Entzun, abestu eta dantza egiteko musika izango da. Beraz, dantzarako prest? Jarraian bildu ditugu aurtengo jaietan izango diren hainbat kontzertu, eta... ez dira gutxi! Adi, beraz!*



## GATIBU

**Abuztuak 23, 22:30 Foruen Plazan**

"Zoramena" disko arrakastatsuaren ostean, Alex Sardui eta bere mutilek "Disko Infernu" izeneko bigarren diskoa aurkeztuko digute. 2002. urtean sortu zen Gatibu taldea. Exkixu-ren ibilbidea amaitu ostean, Alex Sarduiren itzulera izan zen. Bere inguruan musikari bikainak bildu zituen, eta proiektu berri bati ekin zioten. Gatiburen musikak bi oinarri sendo ditu bere doinuen egitura eraikitzeko. Alde batetik, gitarrak, eta, bestetik, ahotsak. San Bartolome bezpera egunean, Bizkaia aldeko doinuez gozatzeko aukera paregabea izango dugu.



## URGABE

**Abuztuak 23, 22:30 Foruen Plazan**

Urgabe taldea 1995. urtean hasi zen bere lehen pausuak ematen. Agus eta Ainara aspalditik ari ziren batera musika munduan, trikitilari bikote bezala. Urko, Ainararen lehengusua, bateria lanetan hasi eta hirukotea osatu zuten. Taldearen izena hasiera batean Urkabe zen, baina berehala jarri zioten gaur egun ezagutzen dugun Urgabe izena. Gerora, gitarrista eta baxujolea gehitu zizkioten taldeari eta boskotea osatu zuten. 2003. urtean taldea erabat aldatzen da, denbora eta kontzertu asko igaro dira taldea hasi zenetik, eta taldeak bide berriak probatu nahi ditu, horrela tronpeta eta saxoak sartzen dira taldean, trikitiaz batera SKA doinuak jorratu nahian. San Bartolome bezpera egunean "Edan hemendik" azken diskoko doinuak entzungo ditugu.

## IMPERIAL DE NOCHISTLÁN MARIATXIAK ETA DUO PLAENTXI

**Abuztuak 24, 23:00 Foruen Plazan**

Imperial de Nochistlan mariatxi taldea 1982. urtean sortu zen Zacatecaseko Nochistlán hirian. Hasieran 10 lagunek osatzen, gaur egun 14 dira taldean. Mexiko, Venezuela, Kolonbia, Estatu Batuak eta Kanadan ibili izan dira. Hiru grabaketa egin dituzte, azkena 2004ko azaroan kaleratu zuten, "Cuando se pierde el alma" izenarekin. Duo Plaentxi, berriz, aski bikote ezaguna da elgoibartarrentzat. Ahots paregabea eta abestiak kantatzeko modu berezi eta ikusgarria.

## ARGAMBOYS

**Abuztuak 24, 23:00 txosnetan**

Durangoko bost gaztek osatzen dute taldea. Beste musika talde batzuetan aritutako musikariak dira denak, eta orain proiektu berri hau sendotzen ari dira. Punk-Rock, Rock and Roll eta garage estiloko musika egiten dute.

## TAMSNA

**Abuztuak 25, arratsaldean kalejira**

Marokotik Bilbora etorritako gazte batek sortu zuen taldea 2000. urtean. Txikitatik erakutsi zuen musikarako zaletasuna, eta berak eginiko instrumentuak jotzen zituen. Pixkanaka-pixkanaka beste musikari batzuekin elkartu, eta erritmo afrikarrak Euskal Herriko kaleetan zehar zabaltzen dituzte.



## TXATUNGA BENBE

**Abuztuak 26, 19:00 kalejira**

Afrika Mendebaleko eta Europako doinuak egiten ditu talde honek, baina Brasil eta Kuba aldeko doinuak ere jotzen dituzte. Perkusio instrumentuak eta ahotsa dira nagusi. Jai giroan ibiltzeko kale ikuskizun bikaina sortzen dute.



## NEKIN

**Abuztuak 25, 19:00 txosnetan**

Bost gaztek osatzen dute Tolosaldeko talde hau. Pandero eta trikitixa doinuekin dantzaldia eskainiko digute Txiki Egunean. Duela lau urte inguru sortu zuten taldea, eta ordutik Euskal Herri osoan zehar aritu dira. Euskal talde ezagunen abestiak jotzen dituzte; Hertzainak, Kortatu eta Itoitz, besteak beste.

## EGAN

**Abuztuak 25, 22:30 Foruen Plazan**

1970. urte inguruan sortu zen Egan taldea. Herriz herri makina bat plaza bete ditu urte hauetan talde honek. Xabier Saldias azpeitiarra da Egan taldeko abeslari nagusia. Beraien abestiak kantatzeaz gain, doinu ezagun ugari abesten dituzte euskaraz. Azkenaldian atera dituzten diskoen artean, "Queen omenduz" aipatu dezakegu. Eganek Queen talde handiaren abestiak maisutasunez abesten ditu euskaraz.




## KAUTA

**Abuztuak 26, 23:00 Foruen Plazan**

Mikel, Adrian, Xabi eta Gorkak osatzen dute Kauta taldea. 2002. Urteko martxoan eskaini zuten lehenengo kontzertua Andoaingo gaztetxean, eta urtebete beranduago lehenengo maketa grabatu zuten. 2003ko abenduan Euskadi Gazteako irratiaren maketa lehiaketan entzulearen saria lortu zuen, eta 2004an, Musika Berria Gaztea saria eman zioten. Iazko udazkenean kaleratu zuten "Izan zaitez zu" izeneko lehenengo diskoa, eta orain herriz herri dabiltza kontzertuak eskaintzen.

## ALTXAMENDU

**Abuztuak 26, gauean txosnetan**

Tuterako lau lagunek osatzen dute taldea. 1998an sortu zen taldea, eta heavy-metal musika euskaraz eginez lortu dute arrakasta. 2003an atera zuten "Ixilik" izeneko lehenengo diskoa, eta ordutik, Su ta Gar, La Venganza de La abuela eta La Polla bezalako taldeekin jo izan dute.



## KOMA

**Abuztuak 26, 23:00 Foruen Plazan**

Iruñako lau musikarik osatzen dute Koma: Juan Karlos Aizpún, Rafael Redín, Natxo Zabala eta Brígido Duque. Maketa desberdinak kaleratu eta Gaztetxeetan zehar kontzertu mordoa eman ostean, 1996an taldeak lehenengo diskoa kaleratu zuen. Urteak aurrera joan ahala, Euskal Herrian sekulako arrakasta lortu eta Estatuan zehar kontzertuak eskaintzen hasi ziren. Jende askok Koma bukatuta zegoela uste zuenean, "Sinonimo de ofender" diskoa kaleratu zuten iazko udan. Kritika oso onak jaso ditu.



## XUKAN

**Abuztuak 27, 23:00 Foruen Plazan**

Xukan taldeak, dantza, trikitixa eta bertsolaritza uztartzen dituen *Iturrian zer dago?* ikuskizuna aurkeztuko du Baserritarren Egunean Foruen Plazan. Bertan, elementu hauen bakarkako emanaldiak eta hiruren arteko nahasketak gertatzen dira. Iturrian zer dago? Ikuskizuna antzinako garbitegi batean suertatzen den sedukzio artistikoa da. Bertan egingo dute topo arropak garbitzera joan diren ama-alabak eta, baserritik feriara bidean, muturra berotu ondoren ur tragoxka bat egitera doazen aita-semeak. Bertsolarien bapatekotasunaren gidaritzapean, istorioak bere bidea egingo du, bi taldeen arteko sedukzio eta maitasun jolasak sortuz.

## XURDIN

**Abuztuak 29, 22:00 Foruen Plazan**

Zirri, Xurdin, Borro, Haizeder eta Dofasolek Xurdinen mundu magikoa erakutsiko digute. Umeentzako abesti eta jolasekin Ipotxen Mundura salto egiteko aukera izango dute etxeko txikienek. Umeen Egunean beraz, Plaza Handian izango da zita.



# Atzera begira



**1956**. urteko erretratu honetan ikusi daitekeen bezala jaietan disfrutatzeko eta ondo pasatzeko grina ez da batere modernoa, ez da, inondik ere, gaur egungoa. Begira bestela argazki honi! **Josepi Elorza "Kortaberri"k** ekarri digu. Txiki eguneko txaranga erakusten digu eta gaur egun Mauxitxak erakartzen duen beste jende elkartzen zen urte haietan ere parranda gosez. Jai-giro aparta erakusten, aurten biziko dugunaren antzekoa seguruenik.

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89


Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

# PNEUMAX

KALITATEA ZIURTA-TZEKO
SQS sistema
ISO 9001/EN 29001
Erreg Zk.: 10677-01

## ENPRESA

**PNEUMAX S.A.** enpresan, hau da, Italiako **PNEUMAX S.P.A.**k Espainian duen filialean, 25 urte baino gehiagoko esperientzia daukagu automatizazio pneumatikoaren alorrean.
Gure Elgoibarko instalazioek 1.000 m²-ko azalera dute estrategikoki kokatuta dagoen industri-poligonoan. Zilindroak muntatzeko eta materiala banatzeko dauzkagun metodo aurreratuekin, gure bezeroei zerbitzu azkarra garantizatzen diegu.



## EGITURA

**PNEUMAX S.P.A.** ren egoitza nagusia Lurano-n (Bergamo-Italia) dago, 13.000 m²-ko azalera dauka, goi-mailako koalifikazioa duten langileak ditu, eta etengabe ari da hedatzen. Bost filial ditu Europan eta Ekialdean, hiru Italian eta ehun kontzesionario esklusibista baino gehiago munduan. Era honetan garantizatzen da asistentzia eta produktuen distribuzioa mundu osoan.




## PRODUKTUAK

Gure produktu-gama zabalaren bidez erraz aurkituko duzu automatizazio-behar bakoitzerako produktu egokia. Izan ere, gure produktuak SQSk Ziurtatutako Kalitate Sistemaren bidez (Kalitatearen Ziurtapenerako Erakunde Suitzarra) proiektatu, garatu, fabrikatu, kontrolatu eta merkaturatzen dira, ISO 90001/EM 29001rekin, hain zuzen ere.

- Airearen tratamendurako FRL taldea.
- Mikrobalbulak
- Balbulak eta elektrobalbulak
- Balbula osagarriak eta osagaiak
- Balbulak eta elektrobalbulak hutserako
- ISO 5599/1 banatzaileak
- ISO 6432 mikrozilindroak
- ISO 6432 - VDMA 24562 zilindroak
- Biraketa-unitateak
- Ibilbide laburreko zilindro konpaktoak
- Zurtoinik gabeko zilindroak
- Abiadura-erregulatzaile hidraulikoak
- Gida-unitate linealak
- Txokerako WEFORMA amortiguadoreak

**PNEUMAX S.A.**
Olaso, 54 • **Tel:** 943 74 41 44-74
**Faxa:** 943 74 40 76
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

# Aterpe
## TABERNA

San Roke auzoa, 5
Tel: 943 74 25 95




Ondo pasa jaiak!


autonomoentzako
plan
integrala
MAPFRE
CAJA SALUD
ZAINTZEN ZAITUGU
Jai
zoriontsuak
opa
dizkizuegu!
San Frantzisko, 40
Tel.: 943 74 05 82
943 74 14 04
Faxa: 943 74 17 07
RMARIAL@mapfre.com


EGUZKI
taberna
Jaietan giro lasai baten bila bazabiltza
zatoz gugana!!!
Pintxoak eta bokatak
Ordutegia: 9:30-13:30
P.M. Urruzuno kalea, 6 behea
ELGOIBAR


Gure 100. urteurrenean
¡jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!
EAJ
PNV




# San Bartolome jai zoriontsuak!

Elgoibarko Udalaren izenean

ELGOIBARKO UDALA